

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

- Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Etiket kanpo dauden ikasleentzat dago bereziki zuzenduta, baina ez bakarrik hauentzat, baita bakarrik bizi diren pertsonak edo lanetik atera eta denbora gutxi dutenentzat ere. Egunero otordu desberdin eta osasugarriak izatea bermatzen du.

- Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

- Otordu desberdinak eta osasuntsuak egunero
- “Etxean sukaldatutakoak” bezelako otorduak, hau da, kalitate onekoak
- Bertan jateko edo etxera eramateko aukera
- Prezio/kalitate ona
- Plater berritzaile osasuntsuak
- Beste janari azkarra ez osasuntsuak eskaintzen duten jatetxeek ez bezala, gure Ti-Ta jatetxeak hori bermatzen die bezeroi
- Munduko herrialde askotako gastronomia salduko dugu, modu osasuntsuan. Horrela, gure kontsumitzaileak nahiz eta kanpokoak izan etxean sentitzeko aukera izango dute.

Beste jatetxeetatik bereizten gaituena gehienbat prezioa da, hau da, balio kuantitatiboa. Nahiz eta elikagai osasuntsuak eskaintzen dituzten tokiak dauden, Ti-Ta-tek menu osatu bat 6,5€ eta 8€-tan eskaintzen dizu.

- Lehiakideengandik bereiz gaitezke honakoen bitartez:

- | | |
|----------------------|----------------------------|
| - Berritasuna | - Pertsonalizazioa |
| - Prestazioak | - Lana erraztea |
| - Marka/Estatusa | - Diseinua |
| - Prezioa | - Arriskuen murrizketa |
| | - Eskuragarritasuna |
| | - Erabilerraztasuna |